

FVEMek ez du erakusten negoziazioan aurrera egiteko borondaterik

FVEMek 2026ra arteko lan-baldintzak izoztea planteatzen du, pertsonen erosteko ahalmena bermatu gabe.

Gaur beste bilera bat egin du Bizkaiko metaleko negoziazio-mahaiak. Bilera honetan, aurrekoetan baino eztabaida biziagoa egon den arren, FVEMek ez du ahalbideratu nahi inolako hobekuntzarik Bizkaiko metaleko sektorearentzat.

Bileraren hasieran, FVEMek negoziazioan zehar mantendu dituen elementu atzerakoiak kendu ditu. Hala ere, erosteko ahalmena bermatzen ez duten soldata-igoeren proposamen berarekin jarraitzen du. Era berean, patronalak uko egiten diolarik langileen lan-baldintzak hobetuko luketen bestelako gaiak sartzeari.

Sindikatu gehiengoak, mugimendu berri bat egin ondoren, aurretik genituen bi eskaerak ezabatu ditu eta planteatzen zen lanaldi-murrizketa mugatu du. Patronalak plataforman jasotako puntuak jorrazteko omen zuen prestutasunaz ere galdetu dugu. Zoritxarrez, FVEM gutxieneko bermearen idazketa argitzeko prest baino ez da agertu.

Laburbilduz, 18 bilera eta 6 greba-egun egin ondoren, FVEMek sektoreari mobilizatzen eta borrokan jarraitzea beste aukerarik ez dio utzi. Beraz, hurrengo asterako greba-deialdiarekin jarraituko dugu, hitzarmena lortzeko tresna bakarra dela sinetsita.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu gaur kontzentrazio bat egin dugula Durangoko epaitegien aurrean, non langile batek deklaratu egin behar izan duen, Bizkaiko metalaren sektorean ekainean burututako grebetan inputatu gisa.

Bilbon, 2022ko azaroaren 17an